

Kataluniako independentziaren debatea

Autonomiek konpetentzia gehiago eta berdintasuna eskatu dute

Elkarte ez historikoak ez dira fido «katalan eta euskal aberatsez»

Eztabaida bizia sortu da azken egunotan Espainiako autonomi historiko eta ez historikoen artean, Baltikoko errepublikek ekarritako independentziaren aldeko mugimenduaren ildotik. Elkarre ez historikoen autonomien arteko berdintasuna eta konpetentzien areagotzea eskatu dute hitzarmen autonomikoaren aurrean.

DONOSTIA

Katalunia eta EAEn «insolidaritatea» salatu dute behin eta berriro Espainiako lurralde ez historikoen. Juan Carlos Rodríguez Ibarra Extremadurako lehendakaria buru dutela, «autonomi pobreek» nazionalitateak dituzten «pribilegio eta aberastasun berdina» eskatu dituzte. Bere ustez, Katalunia eta EAEn independentzia mehatxu gisa erabiltzen dute Madrilko Gobernuaren aurrean konpetentzia gehiago lortu ahal izateko. «Txantxa» horren aurrean, autonomiek Finantzazio eta Lurraldeen arteko konpetentziazio funderen legea aldatzea eskatu dute.

Eztabaida honetan dirua da protagonista. Autonomi elkarte gehienek, eta batez ere PPren gobernua dutenek, osasun eta hezkuntza eskuduntzak zabaltzea eskatu dute, baina horretarako diru gehiago beharrezkoa dute. Madrilko Gobernuak berrogei konpetentzia emateko prest dago transferentzi legeen bitartez.


Baimen ilegalak emateagatik epaitzen dute Burgoseko alkatea

BURGOS

Atzo hasi zen Burgoseko Entzutegi Probintzian «Eraikuntzaren afera» izenez ezagutzen den kasuaren epaiketa. Bertan Jose Maria Peña San Martin Burgoseko alkatea eta udal eta Castilla-Leoneko zenbait mandatariek epaituko dituzte beste akusatatu batzuen artean, eraikuntza baimen ilegalak emateagatik.

1988ko otsailean eman zen jakitera «Eraikuntzaren afera», Burgoseko Enpresarien Elkarte bi partaidek alkatea, bi alkateorde eta beste zenbait pertsona eraikuntza lanen baimenak «Rio Vena» enpresari ilegalki emateagatik salatu zituztenean. Jesus de las Heras eta Juan Renedo enpresariak egindako salaketari talde politiko eta bizilagunen elkarte ugari gehitu zitzaizkion.

Fiskalak eta akusazio partikularren arabera, Jose Maria Peña, beste akusatuen laguntzarekin, bi



I. MARTIRENA

Katalunia hasi da jadanik finantzazioa bere aldetik negoziatzen eta hau ez dute begi onez ikusi beste autonomietatik. Hego Euskal Herriko bi elkarte autonomikoen foruei esker duten kupoa -beraiek biltzen dituzte zergak eta jaso ez dituzten konpetentzien arabera Madrilko Gobernuari ordaintzen diote- zabaltzea eskatzen dute batzuek.

BERDINTZEAREN ALDEKO AHOTSAK

Espainiako hegoaldeko etorri dira Katalunia eta EAEn aurkako kritikarik gogo-

✓ «Gu ez gaude prest Katalunia eta Euskadiri emango zaiena baino gutxiago jasotzeko, hauei bere espainolasuna erosi behar zaielako».

rrenak. Partido Andalucistaren buru den Alejandro Rojas Marcok «autonomi guztien berdintasuna» exigitu du. Hitzarmen autonomikoen izango duen garrantzia argi ikusten da bere adierazpenetan, «gu ez gaude prest Katalunia eta Euskadiri emango zaiena baino gutxiago jasotzeko, hauei bere espainolasuna erosi behar zaielako».

Era berdinean, baina ohizkoa duen hizkera gogorarekin, mintzatu zen Juan Carlos Rodríguez Ibarra Extremadurako lehendakaria. Rodríguez Ibarren iritziz, «mehatxu independentistak erabiliz Espainiako Estatutik abantaila gehiago lortu nahi dituztenen aurka ahotsa altxatzeko ordua iritsi da. Hortaz, ni behartua nago bizilagunen etxean sartzea, jatekoa kentzen saiatzen ari da eta». Konstituzioa zalantzan jartzeak Extremadurako lehendakaria urduritzen du, «sasinazionalisten mugimendu horrek nazionalitateen arazoa behin betirako konpontzen zuen araudia zelako».



Tarregako larunbat gaueko gertakarien ondorioak.

GOMEZ VIDAL

Gau iskanbilatsuaren ondorioz hamazazpi atxilotu Katalunian

TARREGA

Asteburuan gertaera larriak izan dira Kataluniako Tarrega herrian, antzerki ihardunaldi batzuen inguruan gazte talde bat udaletxea hartzen saiatu zenean. Ondoren, denda askotan kalteak eragin zituzten gazteek.

Erasoaren arrazoiak ez daude oso

argi, baina gazteak mozkortuta egon zitezkeela eman du aditzera bertako polizia. Goardia Zibilak eta Mossos d'Esquadra —polizia autonomoak— hartu zuten parte istiluetan eta 86 gazte atxilotu zituzten guztira. Horietako 64 libre utzi zituzten baina gainerakoak espetxeratu egin dituzte. Atzo Tarregako udalak kondenatu egin zituen gertaera horiek.

LABURREAN

KATALUNIAko polizia autonomoa finantzatzeko ituna

Kataluniako agintari autonomoek eta Madrilko Gobernuak gaur berretsiko dute Kataluniako polizia autonomoaren —Mossos d'Esquadra direlakoak— finantzamendu akordioa. Polizia autonomoaren 1.125 mosso-etarik, 800en soldatak Estatuak ordainduko ditu. 3.000 milioi pezetako hitzarmena da gaur sinatuko dena. Hala ere, Mossos hedatu arren, ez dira Kataluniatik joango gaur han dauden Polizia Nazional eta Goardia Zibileko indarrak.

LURREKO Armada espainola handiegia dela diote

Espainiako Senatuko Defentsa batzordearen burua den Ignacio Díaz Gonzalez iritziz, «Espainiako Lurreko Armada handiegia da eta ez dator bat Espainiaren defentsa eta segurtasun premiekin». PSOEko den Díaz Gonzalezek Armadaren berregituraketa eskatu du. «Ekintza azkarrerako indarrak» sortu beharko liratekeela esan du PSOEko politikari honek.

CHIRAC sozialisten eta FNren kontra gogor

Jacques Chirac Pariseko alkate eta Frantziako oposizioko buruak hauteskunde kanpaina giroan barneratu zuen igandean. RPR alderdiko gazterien udako unibertsitatea amaitzeko ekitaldian, sozialisten politika gogor kritikatu zuen. Sozialisten agintaren hamar urteak biziki kaltegarriak izan dira Frantzia rentzat, Chiracen iritziz. Le Pen-en FNren kontrako hitzak ere izan zituen, FNk ez daukala erantzunik Frantziaren benetako gal derentzat adierazi bait zuen.

MAGREBeko 45 etorkin atxilotu zituen Espainiako Poliziak

Espainiara ilegalki sartu nahi zuten 45 magrebiar atxilotu zituen atzo Poliziak Almuñecarren (Granada). Bi txalupetan iritsi ziren etorkinak Almuñecarreko hondartzara eta bertan atxilotu zituzten. Gehienak Nadorretik zetozten marokkiarrak dira. Poliziaren susmoen arabera, Espainiara sartu nahi zuten etorkin magrebiar gehiago egon daitezke oraindik hondartza inguruan ezkutatuak, oraindik ez bait dute bigarren txalupa aurkitu.